
Nueva Economía Forum. Bilbao. 2026-05-11

Donostiako alkatearen hitzaldia

Jon Insausti Maisterrena

Donostia, bere etorkizuna erabakitzen duen hiria

Egun on guztioi:

Eskerrik asko gaur goizean nire **lehen Nueva Economía Forumeko** hitzaldia entzutera etorri zareten guztioi. Eta **Esther**, bihotzez, eskerrik asko zure hitzengatik. Benetan eskertua.

Ohore handia da gaur hemen egotea zuekin guztiokin.

Askok galdetzen didazue egun hauetan nola nagoen, nola bizi dudan aro berri hau. Eta egia esan, aitortza pertsonal sinple batekin hasi nahi dut: **oso harro nago Donostiako alkatea izateaz. Ilusioz beteta nago, eta lanean buru-belarri.**

Baina, aldi berean, inoiz baino argiago dut gaur Donostia gobernatzea ez dela soilik udala edo espazio publikoa kudeatzea. Gaur hiria gobernatzea **donostiarron emozioak, itxaropenak eta ziurgabetasunak** kudeatzea ere bada. Horregatik guztiagatik, **politika ona eta erabilgarria** aldarrikatzen dut, **eta ez**, oihu gehien egiten duena. Arazoei aurrez aurre begiratu eta benetako konponbideak eskaintzen dituen ekintzak jarri ditugu abian.

Eta hasieratik **“Donostiarron Donostia”** aldarrikatu nuen. Donostia donostiarrengandik eta donostiarrentzat eraikitzen duen **ideia eta lan dinamika**. Hirian bizi, lan egin eta bizitza-proiektu bat garatu nahi duenaren alde egingo nuela esan nuen, eta horri ekin diot hasiera – hasieratik.

Duela hamar urte sartu nintzen zinegotzi gisa Udalean, eta denbora horretan Donostia asko aldatu da. Lehentasunak aldatu zaizkigu. Erronkak gero eta globalagoak dira. Eta orain belaunaldi berri bati dagokigu lekukoa hartu, eta gure garaiko erronkei erantzunak ematea.

Gaur Donostiak, kulturaz gain, zientzia, ezagutza eta berrikuntza ditu etorkizunaren ardatz. Ez dira nolanhiko gakoak gaurkoan aztertuko dugun bezala.

Gaur goizean 195 egun bete ditut Donostiako alkate, eta **hiru hausnarketa garrantzitsu** partekatu nahi nituzke zuekin, eta horretarako:

- **Datu** batekin etorri naiz,
- **asmo** batekin
- eta, azkenik, **gonbidapen** batekin.

Hiru ideia soil, baina garrantzitsuak iruditzen zaizkidanak.

Baina, horiei ekin aurretik, hausnarketa bat egitea gustatuko litzaidake.

Luzaroan pentsatu izan dugu munduaren etorkizuna estatu-parametroetan, parlamentu handietan edo nazioarteko erakunde handietan bakarrik erabakitzen zela.

Gaur egun hori ez da horrela, erabat behintzat.

Etorkizuna nagusiki hirietan erabakitzen ari da.

Izan ere, hirietan bizi dituzten jendeak egiazki gure garaiko aldaketa handiak.

- Klima-trantsizioa.
- Berrikuntza teknologikoa.
- Aniztasuna.
- Bakardadea.
- Mugikortasun berria.
- Etxebizitza eskuratzea...

Ia dena hirietan gertatzen da.

Gaur egun, hiri bat gobernatzea ez da zerbitzuak kudeatzea bakarrik.

- Garai bat interpretatzea da.

- Konfiantza sortzea, ziurgabetasun-une batean.
- Eta komunitatea eraikitzea, zatikatzea handitzen ari den garai batean.

Eta niretzat oso garrantzitsua den zerbait ere bada gobernatzea:

politika erabilgarria egitea.

Zeren, herritarrek jada ez dute zarata jasaten, ez eta gehiegizko aktuazioa eta politika etengabeko ikuskizun bihurtzea ere.

Jendeak beste zerbait espero du.

- Kontakizun huts gutxiago eta gidaritza gehiago.
- Taktika gutxiago eta asmo gehiago.
- Konfrontazio gutxiago eta arazoak konpontzeko gaitasun handiagoa.

Benetan uste dut **aro politiko berri** batean sartzen ari garela. Hala ikusten dut alkate gisa bizilagunekin izandako autobus-elkarrizketa txikietan, Altzatik jaisten naizenean, edo elkarteek Donostian antolatzen dituzten ehunka jardueretara joaten naizenean. **Adibide bat:** Nanoguneko dorre kuantiko berria inauguratu genuen egunean, egun hartan bertan, grafiti gehiago garbitzeko eta auzoan jarrita ziren kartelak kentzeko eskatu zidan hango bizilagun batek.

Herritarrek badakite gobernatzea **ez** dela beti asmatzea; **kargu egitea da, erantzukizuna hartzea.**

Eta lider izateak ez du esan nahi argazkiaren erdigunea okupatzea, baizik eta **gaitasunak konektatzea eta adimen kolektiboa aktibatzea.**

Gaur egun ondoen funtzionatzen duten hiriak **entzuteko, lankidetzan aritzeko eta aliantza zabalak eraikitzeko gai** direnak dira.

Zeren, gaur egun inork ez du hiri bat berak bakarrik eraldatzen.

Eta politika erabilgarriena ez da garrasika aritzea.

Gehien **eraldatzen** duen hura da.

Herritarrek jada ez dute espero liderrek dena jakitea. Jendearen benetako arazoak ulertu eta **lasai, zorrotz eta zuzen** aurre egiteko gauza izango diren

erakundeak espero ditu. Eta horretan tematuta nago ni aurreneko egunetik bertatik.

Nire ustez, datozen hamarkadetan Europa gidatuko duten hiriak **ez dira hiririk handienak, aberatsenak eta ikusgarrienak bakarrik izango.**

Jendeak nola bizi nahi duen eta bizi-proiektu bat nola garatu nahi duten ondoen ulertzen duten hiriak izango dira.

- Oparotasuna eta kohesioa uztartzen dakitenak.
- Gizatasunez berritzea.
- Anbizio sustraiduna.

Eta hor ekarpen handia egin dezake Donostiak.

I. DATU BATEKIN ETORRI NAIZ

Duela urtebete argitaratu zen **Donostiako herritarren pertzepzioari buruzko azken inkesta.**

Eta datu nagusia ezohiko datu bat da.

Donostiarren % 94k dio pozik sentitzen dela bere hirian bizitzeagatik.

Eta % 89k dio pozik sentitzen dela duen bizi-kalitatearekin.

Ez gara nolanhiko adierazle batez ari, ez.

Nabarmenezko moduko zerbaitez ari gara,

nola sentitzen diren donostiarrek beren eguneroko bizimoduan.

Eta datu hori ez da kasualitatez sortua.

Orain dela 10 urte, **Europako Kultur Hiriburu** titulua hartu zuen Donostiak. Pasa dira hamar urte, eta gai izan gara titulu hura izenburu puntual bat baino gehiago zela ulertzen, eta lan-orri bat izan da guretzat.

Izan ere, azken urteotan, **beste bi ezaugarri** erantsi dizkiogu **Kulturari Donostian: Zientzia eta Ezagutza**. Donostia, beraz, **Kulturaren, Zientziaren eta Ezagutzaren** hiria da. Eta Donostian, **K**-rekin idazten dugu **Kultura**; euskaraz, nortasun propioarekin. Hiri oparoa eta herritar jantziak izaten laguntzen diguten zutabe sendoak.

Hasieran esan dut hirietan ari direla **konponbideak eta politika berriak** sortzen. Eta horrela izan behar du hemendik aurrera ere. Izan ere, konpontzen ez den arazoa gatazka bihurtzen da. Eta kontuz, ze orduan agertzen dira sinpletasuna eta asaldura beste oinarririk ez duten aukera politikoak.

Eta oso argi esango dut: **ez buenismorik, ez populismorik**. Ez mutur bat, ez bestea. **Politika erabilgarria da korapiloak askatzen dituen politika, arazoei aurrez aurre begiratzen diena, gauzei beren izenez deitzen diena eta irtenbide zehatzak eskaintzen dituena.**

Politika tentsioa da, bai; baina, gai izan behar dugu tentsio hori herritarrentzako mesedegarri bihurtzeko. **Energia positiboa sortzea, orain 10 urte Olatu Talka dinamikarekin esan genuen bezala.**

Harrezkero, gaur egungo mundualdian oso urri den zerbaiti eustea lortu du Donostiak:

orekari.

- Hirigintza-kalitatearen eta gizarte-kohesioaren arteko orekari;
- garapen ekonomikoaren eta bizi-kalitatearen artekoari, eta
- nortasunaren eta nazioartera irekita izatearen arteko orekari.

Rankingak eta inkestak ondo daude, egoa elikatzen digute, aukerak eskaintzen dizkigute, munduan kokatzen gaituzte. Baina, nik ez dut rankingetako hiri bat nahi.

Oso gauza garrantzitsua esaten ari zaizkigulako donostiarrak.

Benetako kezkek daudela esaten ari zaizkigu;

- Donostian bizitzea gero eta gehiago kostatzen dela;

- etxebizitza eskuratzea belaunaldi-erronka handia bihurtu dela;
- zahartzeak erabat aldatzen dituela hiriaren beharrak;
- gehiago zaindu behar dugula guneko publikoa, bizikidetzaren eta segurtasuna.

Gaur egun, **189.866 bizilagun** gara Donostian.

Baina, beste datu bat ere azpimarratu nahi nuke:

- **Zahartze-tasa % 26,5 da**, hau da, **lau donostiarretatik batek** 65 urte baino gehiago ditu.
- Bitartean, **jaiotza-tasak behera** egiten du, batez besteko adinak gora egiten du eta **hiru etxebizitzatik bat pertsona bakarreko familia** da.

Eta horrek erabat aldatzen du edozein hiri ere, eta alderdi askotatik aldatu ere; **mugikortasun** aldetik, **zaintza** aldetik edota **etxebizitza** aldetik.

Horregatik uste dut etorkizuneko hiriak ez direla inbertsioak erakartzeko soilik lehiatuko.

Askoz gauza garrantzitsuago baettegatik lehiatuko dira:

bizitzeko leku onak izateagatik.

Eta hor agertzen da bigarren ideia.

II. ASMO BATEKIN ETORRI NAIZ

Europako hiririk oparoena eta zoriontsuena izatea nahi dugu **Donostia**.

Bai, oparotasuna eta zoriontasuna.

Bi hitz garrantzitsu. **Gehitu** egiten duten hitzak.

Oparotasuna; **ekonomia indartsurik gabe ez** dagoelako **ongizateari eusterik, ez eta justizia sozialik izaterik ere**. Izan ere, aurrera gehien egiten duten gizarteak **kalitatezko enplegua, berrikuntza eta aukerak** sortzen dituzten gizarteak baitira.

Programa politiko guztietan dago oparotasuna. **Zoriontasuna, berriz, nik ez dut programa bakar batean ere irakurri**. Eta nik Donostia oparoa nahi dut, eta, jakina, baita donostiar zoriontsuak ere.

Eta, alde horretatik, Donostiak aparteko adierazleak ditu gaur egun.

- **Langabezia-tasa** txikiena duen Estatuko hiriburua gara: **% 5,3**.
- **Batez besteko errenta pertsonala 31.000 euro baino handiagoa da**, Estatuko hiriburuetan denik eta altuena.

Eta horrek zerikusi handia du Donostiaren hiri-ereduarekin:

zientziaren, ezagutzaren eta berrikuntzaren alde egitea.

Gaur egun, BPGaren % 3,7 inbertitzen du Donostiak I+G+b arloan.

- Europako batez bestekoa baino gehiago,
- Ameriketako Estatu Batuetakoa baino gehiago
- eta Japoniako baino gehiago.

Hiriaren ikuspegi partekatuaren emaitza da; izan ere, Donostia erreferentzia da nazioartean baita **biozientzietan, adimen artifizialean eta konputazio kuantikoan** ere.

- **30 erakunde** ditugu **Zientzia eta Teknologiaren** Euskal Sareari lotuta.
- **21.000 ikasle baino gehiago** unibertsitateetan eta lanbide-heziketako zentroetan.

Baina, horrezaz gainera, beste gauza garrantzitsu batzuk ere ari dira gertatzen Donostian.

- **Ibaetako polo kuantikoa** errealitate bat da jada; IBMren ordenagailu kuantikoa ez da gelditzen, eta **Multiverse Computing eta horrelako enpresa batzuk** Europako mapa teknologikoan kokatzen ari dira gure

hiria. **Eta hori** ere bada, **Kontxarekin batera, inguru paregabea**, gaur egun **milia kuantikoa esaten zaiona**.

- Miramonen, **Columbus Biotech Hub berriak** 80 milioi euro mobilizatzen ditu bizitzaren zientzietako eta teknologia aurreratuetako puntako enpresak erakartzeko; eta **prontoterapiak**, berriz, minbiziaren sendaketaren abangoardian jarriko gaitu.
- **EITBren ikus-entzunezko HUBak** ere heldu dio berrikuntza historiko bati Miramonen, eta, Tabakalerarekin batera, palanka handia izango da **ikus-entzunezkoen euskal industria eta euskalduna** bultzatzeko.
- Eta udazkenean, berriz, topo berriak nabarmen aldatu eta hobetuko ditu mugikortasun berria eta garraio publikoa.

Baina lehen ere esan dut gure helburua ez dela oparotasuna bakarrik.

Zoriontasuna ere bada.

Hiri gizatiar, berdinzale eta inklusiboa izan nahi dugu, inor atzean utzi gabe.

- **2026ko udal-aurrekontuak sekula izan diren aurrekonturik sozialenak** dira.
- **Urtean 18.000 familia** artatzen dituzte gizarte-zerbitzuek; Donostiako 4 familiatatik 1.
- **Donostiarren % 70ek** erregularitasunez egiten du jarduera fisikoa.
- Eta Euskadi guztian den klubik handiena **Donostia Kultura** da, **130.000 bazkide** ditu.

Zenbaki eta datu horiek erakusten dute **donostiarra** dela gure politika guztien erdigunean dagoena, eta alkate-makila hartu nuen egunean niri buruari jarri nion zeregin nagusia **donostiarren Donostiaren aldeko apustua** egitea izan zen.

Eta, azkenik, beste datu bat ere azpimarratu nahi nuke, Donostiak duen ondare nagusietako bat:

% 86k baino gehiagok dio konfiantza duela bere auzoko jendearekin;

eta % 82k baino gehiagok hiriko jendearekin.

Horrek balio handia du gaur egun.

Izan ere, **polarizazio-, zarata- eta mesfidantza-**garaia bizi dugu.

Eta etorkizunean hobekien funtzionatuko duten hiriak gizarte-kohesioari eusteko gauza diren hiriak izango dira.

Horregatik aipatzen dugu hainbestetan zaintza kontua guk.

Hiri-estrategia da zaintzarena.

- Zaintzeak, izan ere, bakardadeari aurre egitea esan nahi du,
- zahartze aktiboari egokitzea hirigintza,
- irisgarritasuna,
- buru osasuna eta
- belaunaldien arteko elkarbizitza.
- Eta etxebizitza ere esan nahi du.

Izan ere, ziur asko, Donostiak gaur egun duen arrisku nagusia belaunaldi berriek iritsi ezin izango duten hiri bihurtzea da.

Gaur egun, ia **10.000 etxebizitza-eskatzaile daude Etxegintzan** izena emanda, Donostian bizitzeko.

Eta horrek jardutea eskatzen du.

Eta ausardia handiz egitea, gainera. Horretarako, ezinbestekoa da **arina eta ausarta izatea.**

- **Arina**, sustapen berriak garatzen; eta etxebizitza-tipologia bat baino gehiago izango dituen sustapenak izatea haiek, **auzo kohesionatuak** lortzeko **eta klase ertaina** nagusitzeko.
- Eta **ausarta**, eraikitako hiriari begiratzen, etxebizitza handiak banantzeko eta lokalak etxebizitza bihurtzeko modua emanaz.

Gaur egun, **1.100 etxebizitza** ari gara eraikitzen Donostian: Lorategi Hirian, Añorga Txikian eta Infernuan.

Eta Illarran, Txomineneko II. fasean eta Jolastokietan izango diren garapenekin beste ia 1.000 etxebizitza gehiago izango dira. Datozen hilabeteetan hasiko dira horien garapenak.

Hori dena eta gehiago egin behar dugu, bizi-proiektua Donostian eraiki nahi dutenentzako aukerak sortzen jarraitzeko.

Eta beste ideia garrantzitsu bat sartu nahi dut orain.

Donostiaren etorkizuna ez da Donostiarena berarena bakarrik izango.

Ezta Bilborena ere.

Ezta Gasteizena, Iruñarena eta Baionarena ere.

Euskadiren benetako jauzia **metropolikoa** izango da.

Europar diren hiririk lehiakorrenek ez dute hiri isolatu gisa jarduten.

Konektatutako hiri-sistema gisa jarduten dute.

Eta Euskadik aukera handia dauka hor.

Izan ere, euskal hiriburu guztiak ordubete baino gutxiagoan artikulatzeko eta konektatzeko modua daukagu guk, eta ziur asko Europa guztian ez da horrelako aukera duen besterik izango.

Horrela, elkarren artean, gauza askoz indartsuago bat osatzen dugu:

euskal metropoli europar handia.

"I am Basque" metropolia.

Hiri-sare bat, mundu guztian lehiatzeko gai dena, giza eskala galdu gabe.

Baina hori aprobetxatu ahal izateko, beste kultura instituzional bat izan behar dugu.

- Lurralde edo hiriburuen arteko **lehia gutxiago** eta herrialdearen **ikuspegi partekatu gehiago**.
- Administrazio-mugaren **logika txikiagoa** eta metropoli-lankidetzaren **logika handiagoa**.

Zeren, benetan uste dut, herrialde txikiek –Euskadik berak, adibidez– lankidetzan jarduten jakin behar dutela etorkizunik izango badute.

Eta halako erakunde-maila bat izatea eskatzen du horrek, eta paradigma-aldaketa ere bai.

III. GONBIDAPEN BATEKIN ETORRI NAIZ

Hasieran esan dut **zifra batekin, asmo batekin eta gonbidapen batekin** etorri naizela.

Gonbidapena da hilabete honen amaieran abian jarriko dugun ekimen batean **parte hartzeko gonbita** egitea. **Elkarrizketa kolektibo handi bat** da, donostiarrok hurrengo hamarkadan **nola izan nahi dugun** eta **zer-nola sentitu nahi dugun**.

Eta elkarren artean egitea ere esan nahi du.

Ikuspegi partekatu bat eta ibilbide-orri bat sortu nahi ditugu. Baina, hausnarketa horren **benetako protagonista** ez da hiria, abstraktuan, izango, obra-katalogo bat izango balitz bezala; baizik eta, **Donostiarrak gara**.

Aldatu egin gara.

Eta gurekin batera, gure erronkak ere aldatu egin dira.

Ongizatea eraikitzen jakin duten hiriek badakite etorkizuna ez dela heredatzen; **konkistatu egin behar izaten da** berriz, eta **ideia eta ahots berriak ekartzen dituzten belaunaldiek** egiten dute hori.

Euskadin badago **belaunaldi berri bat**, erantzukizunak bere gain hartzeko **prestatua** dagoena. Eta erabakitasunez eta ilusioz hartzen dugu.

Hori, ordea, ez da politikan bakarrik gertatzen ari. Kulturari ere gertatzen da. Hor dugu, hemen bertan, Bilbon, **Miren Arzalluz**, Guggenheim-ean; edota Donostian, **Mailen Beloki**, Zinemaldiaren zuzendari. Komunikatzaile berriekin gertatzen da; hor dugu **Aimar Bretos**. Edo kudeatzaile profil berriak dituztenekin: **Peio Rodriguez**, esate baterako, Mondragon korporazioaren buru. Eta aipatu nitzake **Eider Rodriguez, Pello Reparaz, Mikel Oyarzabal, Kike**

Esnaola psikologoa edota, gure azken Urrezko Danborra, **Xabier Anduaga** ere –azken aste honetan arrakasta handia izan duena Liceun–.

Azkeneko bost urteotako egunkarien titularrei erreparatuz gero, ikusiko dugu ez zela hainbeste aipatzen **migrazio, segurtasun eta etxebizitza konturik**. Gaur egun, geure burua zaintzeaz eta adimen artifizialaz aritzen gara, edo zenbat ordu pasatzen dugun pantaileri begira. Lehengo agendetan ageri ez ziren kontuak dira horiek.

Eta hori guztia, gizarte **azeleratuago, konplexuago, zorrotzago eta globalago** batean, gainera. Eta gure erantzukizuna da –gure belaunaldiaren erantzukizuna– bizi dugun garaiari dagokion mailan egon eta hurrengo hamarkada konkistatzea berriro.

Elkarrizketa- eta eztabaida-jardunaldi guztien helburua ez da plan estrategiko bat egitea bakarrik izaten.

Gaur egun hiri bat nola eraikitzen den ulertzeko modu bat da.

Izan ere, hiriak ez dira bulegoetatik soilik eraldatzen.

- Sareetatik eraldatzen dira.
- Aliantzetatik abiatuta.
- Eta Donostiak gaur egun dituen mila elkarten indarra eta dedikazioa oinarri hartuta.

Europako hiri askotan ikusi dugu:

- Aspaldi ikusi zuen **Kopenhagek**, adibidez, hiri-etorkizunak lankidetzan publiko-pribatua, jasangarritasuna eta ikuspegi partekatua izatea eskatzen zuela.
- **Londresen** orain jarri du abian "Loved and Wanted" egitasmoa. Helburua: **gizarte-kohesioa, inklusioa eta pertenezia-sentimendua handitzea, hiri zeharo anitz batean.**

- **Ganten, hiri-, gizarte- eta prebentzio-ikuspegia duen segurtasun-eredua** garatu dute. Segurtasuna hiria diseinatzeko moduaren ondorioa da.

Denek ala denek, ordea, funtsezko gauza bat uste dute;

arazoak kudeatzea baino gehiago ere egin behar dutela hiriek:

ziurtasuna eta itxaropena sortu behar dute.

Horregatik, erraz egiteko moduko gauza bat egiteko gonbita egin nahi dizuet gaur:

- har dezagun parte,
- eraiki dezagun,
- inplikatu gaitezen.

Donostiaren etorkizuna idatzi gabe baitago.

Eta, segur aski, hori izango da **gure pribilegiarik handiena**.

Oraindik erabaki dezakegula **zer hiri izan nahi dugun**, eta garrantzitsuena, **nola sentitu nahi dugun donostiar**.

Nik argi daukat.

Hemen bizi izan denak **ezagutzeko moduko Donostia** izatea nahi dut.

Baina, era berean, etorkizuna hemen eraiki nahi duenarentzat ere **erakargarria** izango den hiria izatea nahi dut.

- Zaintzen duen hiria;
- berritzailea;
- aukerak sortuko dituena;
- komunitateari eutsiko diona.

Den horretaz **harro dagoen hiria**, baina **anbizio handia** izango duena zer izan nahi duen izateko.

Alegia,

- hiri oparoa;
- hiri zoriontsua.

Guztion artean egindako hiria.

Batera, bagera, Donostiarra Topera.

Eskerrik asko.

Jon Insausti Maisterrena

Donostiako alkatea